

BALOREZKO PROPOSAMENA

• Ze behar edo arazo konpontzen duzue?

Konfinamendu hasieratik arazo edo gaixotasun psikologikoen presentzia areagotu egin da gizartean. Arazo psikologikoen artean desberdinak daude, besteak beste, etxean egoera larria, tratu txarrak jasan izana, egoera ekonomiko gogorra... Guk proposatzen duguna egoera zail hauei aurre egin behar dien pertsoneri laguntza psikologikoa eskeintzea da. Horrez gain, egoera batzuetan hitzen bidezko laguntza ez da nahikoa eta egoera horiek konpontzeko edo jendeari bere bizi kalitatea hobetzen saiatzeko, beste enpresa batzuekin kontaktuan jarriko gara, horrela, beraien arazoen irtenbidea bidera dezakegu. Beraz, psikologoez gain, abokatuak eta administrariak egongo dira. Gure bezeroek edozein motatako laguntza behar dutenean, bitartekari lanetan jardungo dugu. Hau da, gu arduratuko gara beraien beharrak asetzeko egin beharreko jarduerak egitera. Esate baterako, adin nagusiko pertsona bat etxetik atera ezin bada eta norbaitek erosketak etxera eramateko beharra badu, gurekin kontaktatzeko aukera izango du, eta gure ardurapean geldituko da behar duen guztia bere etxera iristea. Izan ere, beste enpresa betekin kontaktuan jarriko gara lan hori egin ahal izateko.

• Zerk bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

Gure balioa kualitatiboa izango da, hau da, beste enpresengandik bereizten gaituena gure enpresak eskeiniko duen zerbitzu eskusiboa izango da. Gure zerbitzua kontratatzen dutenen arazo guztietaz arduratuko gara, hasieratik amaierara, izan ere, beste enpresek eskeiniko duten zerbitzua banakako zerbitzua izango da. Beraz, guk erraztasun bat eskeiniko diegu beraien arazoen aurrean. Horrez gain, gure zerbitzua eskuragarria izango da, izan ere, modu desberdinetan kontakta dezakete gurekin: telefonoz, emailaz, sare sozialen bidez... Azkenik, gure zerbitzuen truke ordaindu beharreko prezioa ez da altua izango, bezeroentzat eskuragarria izatea nahi dugulako. Gainera, bezeroek egoera berezi bat badute: alarguntasuna, desgaitua... deskontuak eskeiniko zaizkie.

